

AZTERKETAK | 55

2025eko MAIATZA

Gutxieneko Soldataren proposamen integrala Hego Euskal Herriarentzat

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Soldatak jarduera ekonomikoaren elementu gisa kapitalismoan	2
3. LGS-ren igoeraren ondorioak	3
3.1. LGS gizarte politikarako tresna gisa	3
3.2. Ondorio sozioekonomikoak	3
3.3. Ondorioak errentaren banaketan, soldata-egituran eta enpleguan	4
3.4. Ondorioak politika ekonomiko, industrial eta ekoizpen-garapen gisa	6
4. LGS zifratan	7
5. LGS kalkulatzeko metodologia berria	9
5.1. Irizpideak	9
5.2. Proposamena	10
5.3. Eraginak	12
6. Politika ekonomiko osagarriak	13
6.1. Politika fiskala	13
6.2. Industria politika	13
6.3. Lan-politika	14
6.4. Negoziazio kolektiboa eta ekintza sindikala	14
7. Ondorioak	15
8. Azken oharrak	16



1. SARRERA

Txosten honek Hego Euskal Herrian gutxieneko soldata ezartzeko proposamen integrala aurkezten du, justizia sozialaren tresna gisa ez ezik, politika ekonomiko, produktibo eta birbanatzaile gisa ere pentsatua. Proposamena oinarri teoriko marxista, postkeynesiar eta kaleckiarrak uztartzen dituen ikuspegi batean oinarritzen da, eta helburu nagusi baten inguruan artikulatzen da: langile klasearen baldintza materialak hobetzea kolektiboki sortutako aberastasunean partehartze handiagoaren bitartez.

Gutxieneko soldataren hainbat dimentsio jorratzen dira dokumentuan. Lehenik eta behin, kapitalismoaren funtzionamenduan duen paper zentrala aztertzen da ikuspegi heterodoxo batetik, metaketa, eskari agregatua eta birbanaketa gatazkan duen eragina azpimarratuz. Ondoren, gutxieneko soldata igotzearen ondorioak aztertzen dira hainbat arlotan: babes publikoko sistema indartzen duen gizarte politika gisa, pobrezia eta desberdintasunak murrizteko mekanismo gisa, soldata egituraren eragina duen birbanatze neurri gisa eta sustapen ekonomiko eta produktiborako tresna gisa. Txostenak 2000 eta 2025 urteen artean Espainiako Estatuko gutxieneko soldataren bilakaera ere aztertzen du, eskualdeko adierazleek zehaztutako ongizate-atalasearekin kontrastatuz.

Hortik aurrera, LGS kalkulatzeko metodologia berri bat proposatzen da. Simulazioen eta nazioarteko konparaketen bidez, proposamen honen bideragarritasun ekonomikoa eta birbanatze ahalmen potentziala frogatzen da, baita Hego Euskal Herriko ekoizpen eta enpresa egiturarekin duen bateragarritasuna ere. Era berean, bere eragin positiboak identifikatzen dira sektore ahulenetan, hala nola, zaintzen esparruan, eta historikoki prekarioenak diren taldeetan, emakumeetan eta pertsona migratuetan.

Azkenik, neurriak eragin estrukturala eta iraunkorra izan dezan beharrezkoak diren politika ekonomiko eta laboral osagarrien multzoa proposatzen da. Besteak beste, zerga-erreforma progresiboa, deslokalizazioa saihestu eta errotzea sustatzen duen industria-estrategia, enplegu-politika aktiboak eta negoziazio kolektiboa eta sindikatu-kontrola indartzea.

Dokumentu hau, beraz, ez da gutxieneko soldataren zifra zehatz bat defendatzera mugatzen, aberastasunaren banaketari, enpresen botereari eta lanaren zereginari buruz eztabaida piztu nahi du gaur egungo euskal ekonomian. Politika ekonomikoa neutrala ez dela onartzean oinarritzen da, eta gizarte-klaseen arteko indar-korrelazioari erantzuten dio. Zentzu horretan, klase borrokak eta gatazka sozial zabalagoen borrokak politika ekonomikoen orientazioa kapitalaren interesetatik lanaren era desbideratu dezakete.

2. SOLDATAK JARDUERA EKONOMIKOAREN ELEMENTU GISA KAPITALISMOAN

2. or.

Ekonomia politiko heterodoxotik —ikuspegi marxista, postkeynesiar, instituzionalistak eta konparatiboak barne— soldatek funtsezko papera betetzen dute kapitalismoaren dinamikan. Epe luzera, korrante marxistek metaketa eta krisietan soldaten egiturazko garrantzia nabarmentzen dute¹, aldiz, maila koiunturalago batean, postkeynesiar eta kaleckiar ikuspegiak politika ekonomikoa bideratzeko gakotzat jotzen dute². Ikuspegi hauek, ñabardura desberdinak izan arren, bat datoz kapitalaren eta lanaren arteko banaketa-gatazka nabarmentzearekin, eta soldaten eragin erabakigarria erakusten dute bai eskaintzan, bai eskari agregatuan. Alde batetik, soldatek enpresen kostu-baldintzak determinatzen dituzte, produkzio-faktoreen erosketari eta produktu edo zerbitzua eskuratzeari dagozkienak eta, beraz, inbertsio eta salmentaren bideragarritasun eta errentagarritasuna zehazten dute; ondorioz, baita enpresen beren bideragarritasun eta errentagarritasuna ere. Bestetik, espero den mozkin-tasarekin lotutako eskari-baldintzak ere determinatzen dituzte eta, hartara, instalatutako produkzio-ahalmena, benetako ekoizpena eta soldaten erosketa-ahalmenarekin izango den salmenta (eta zorpetze-marjina posiblea).

Ikuspegi makroekonomiko batetik, Kaleckiren ikuspegiak dio soldaten pisuaren igoerak eragin hedakorrak izan ditzakeela barne kontsumora zuzendutako ekonomietan, “wage-led” hazkunde-dinamikak sortuz, non soldata igoerek eskaera agregatua suspertzen duten efektu biderkatzaile eta azeleratzaileen bidez (Naastepad eta Storm, 2007). Aitzitik, “profit-led” edo “export-led” erregimenetan, soldata igoerak negozioen errentagarritasuna murriztu eta inbertsioak eta esportazioak moteldu ditzake.

Hala ere, froga enpirikoek erakutsiko lukete ekonomia garaikide gehienek “wage-led” (soldatak gidatutako) eredu baten pean funtzionatzen dutela, non soldata igoerek eskaria bultzatzea ez ezik produktibitatearen hazkundera ere suspertzen duten³. Garai neoliberalak, ordea, soldaten pisuaren jaitsiera eta desberdintasunak areagotzea izan du ezaugarri, hazkunde jasangarririk ekarri gabe eta hazkundera zorran edo esportazioetan oinarrituz. Zentzu horretan, Kalecki-k (1971:185) adierazi zuenez, “sindikatuaren boterearen igoera erakusten duen soldata igoerak [...] enpleguaren igoera ere dakar”, soldata murrizketak “enplegua murriztea” ekartzen duelarik. Hortaz, krisialdietan (2008-2015, 2020) abian jarritako murrizketa- eta soldaten debaluazio-politikak kaltegarriak izan zitezkeen susperraldi ekonomikorako, enpresa-marjinak enpleguaren eta kontsumoaren kontura mantenduz.

Termino enpirikoetan, Alemanian 2015ean ezarritako gutxieneko soldatak ondorio positiboak ekarri zituen hazkunde ekonomikoan eta gizarte babes handiagoa duen enplegurako trantsizioan (Herzog-Stein et al., 2018)⁴. Espainiar Estatuan, 2019tik hona gutxieneko soldataren igoerak barne-eskaria indartu eta enplegua sortzearen alde egin duelako hipotesia planteatzen da, herrialdea Europar Batasuneko hazkunde ekonomikoaren liderren artean kokatuz⁵. Azkenik, Kratena et al-en eredu ekonometrikoak (2016), input-output ikuspegi neo-keynesiar dinamiko batean oinarriturik, proposatzen du, besteak beste, gutxieneko soldata igotzeak eta lanaldia murrizteak hazkunde handiagoa ekarriko lukeela, langabezia murriztuko zela eta Espainian errentaren banaketa hobetuko lukeela; hau da, ez lukeela izango marko ortodoxoan halako politikei leporatzen zaizkien eragin kaltegarriak.

3. LGS-REN IGOERAREN ONDORIOAK

LGSren igoerak eragin zuzenak eta zeharkakoak ditu gizarte politikan, errentaren birbanaketan, soldata egituraren, enpleguan eta produktibitatean. Literatura enpirikoa kontuan hartuta, atal honetako lau ikuspuntu osagarri horietatik dituen ondorioak zehatz-mehatz aztertzen ditu.

3.1. LGS gizarte politikarako tresna gisa

Gutxieneko soldataren igoera nabarmenak zuzeneko eta zeharkako hainbat ondorio sortzen ditu gizarte politikaren ikuspegitik⁶, bereziki Gizarte Segurantzaren sistemari eta zerga sistemari dagokionez. Diru-sarreraren aldetik, igoera horrek kotizazio-oinarriak igotzen ditu hainbat erregimenetan: orokorrean, nekazaritzako langile okupatuaren erregimen berezian, etxeko langileenean, zenbait hitzarmen berezi eta langabezia-prestazioetan, kontributiboetan zein asistentzialetan. Honek sistemaren diru-sarrerak handitzea eragiten du. Gastuari dagokionez, gutxieneko soldatak zuzenean eragiten du zenbait prestazioen zenbatekoan, hala nola, aldi baterako ezintasunagatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta haurdunaldiko edo edoskitze garaiko arriskuengatik, bai eta Soldata Bermatzeko Funtsak estaltzen dituenak ere, ordaintzeke dauden soldatak eta enpresa-kaudimengabezia kasuetan kalte-ordainak jasotzen dituztenak. Gainera, langabezia-prestazio eta pentsio ugari gutxieneko kotizazio-oinarriari lotuta daudenez, hauek ere hobetzen dira gutxieneko soldataren igoeraren ondorioz.

Zentzu horretan, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteak (AIReF gazteleraz) 2018an kalkulatu zuen gutxieneko soldata 900 eurora igotzeak eragin zuzena izango zuela Erregimen Orokorreko langileen kotizazioetan, 600 milioi euro ingurukoa, hurrenez hurren. Era berean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 19. artikulua arabera, igoera horrek Langile Autonomoen Araubide Bereziaren gutxieneko kotizazio-oinarriari ere eragingo lioke, sistemaren diru-sarrerak gutxi gorabehera 1.000 milioi eurotan handituz. Guztira, AIReFek kalkulatu zuen neurri honen eragin globala 1.500 eta 1.700 milioi euro artekoa izan zitekeela Gizarte Segurantzako diru-sarrera gehigarrietan.

Era berean, dokumentu honetan planteatzen den LGSren igoera nabarmen batek onuradunen PFEZko lan-atxikipean handitzea ekarriko luke eta, ondorioz, zerga-bilketa handitzea. Estatu espainiarreko gutxieneko soldata zergak ordaintzetik salbuetsita egon da azken urteetan, PFEZaren taulak diru-sarreraren igoeretara egokitzen joan baitira. Aurten, ordea, desadostasun handiak egon dira Espainiako gobernuak osatzen duten bazkideen artean, nahiz eta azkenean erabaki den gutxieneko soldata salbuetsita egotea. Txosten honetan planteatzen den LGSren igoera-proposamenean ez dago aurreikusita PFEZaren taulak egokitzea, eta horrek diru-bilketa asko igotzea ekarriko luke.

3.2. Ondorio sozioekonomikoak

Hainbat ikerketek ondorioztatzen dute gutxieneko soldata igotzeak eragin positiboa duela desberdintasunen eta lan-pobreziaren murriztapenean. World Economic Forum-en txostenaren arabera (2017), aztertutako herrialde gehienetan, gutxieneko soldatek soldata-desberdintasuna murrizten lagundu dute, enpleguan kalterik eragin gabe, betiere maila egokietan ezarrita eta gizarte babeserako beste politika batzuekin osatuta: gutxieneko soldaten igoerek banaketaren beheko tramoetako familien diru-sarrerak igotzen dituzte, soldata desberdintasuna eta, neurri txikiagoan, pobrezia murriztuz.

Zentzu berean, Dubekek (2019)⁷ Estatu Batuetako hiru hamarkadetako datuak erabiliz, gutxiene-ko soldataren igoerak 15. pertzentilaren azpitik zeuden familien diru-sarrera gordinak nabarmen handitu zituela ikusi zuen, eta horrela pobrezia-mugaren %125etik beherako pertsonen proportzioa murriztu zen. Irlandan, Redmond et al-ek (2021)⁸ ikusi zuten soldata-desberdintasuna %4 eta %8 arteko jaitziera izan zuela gutxieneko soldata %6 igoz, horren ondorioak 30. pertzentilera hedatuz. Era berean, Storer & Reich-ek (2019), Dow et al-ek (2020) eta beste batzuk, ongizate orokorrean eta kolektibo espezifikoetan hobekuntzak dokumentatu dituzte gutxieneko soldataren igoeren ondoren.

Espainiako estatuaren testuinguruan, Arranz eta García-Serranok (2022)⁹ 2019ko gutxieneko soldataren igoera ebaluatu ostean ondorioztatu zuten %10etik gora handitu zirela lehen bi dezi-letan kokatutako familien sarrera errealak, eta horrek desberdintasuna nabarmen murriztu zuela. Hainbat adierazleren arabera, familia hauen sarreraren desberdintasuna %7,7 eta %11,4 artean murriztu zen pertzentil ratioetan, eta %12 eta %18 banaketaren behe mailetan zentratutako indizeetan. Biztanleria osoa aintzat hartuz gero, %2 eta %3,8 bitarteko murrizketa zenbatetsi zen, eta inpaktu nabarmenagoa izan zuen beheko tramoekiko sentikorrak diren indizetan, %3,4 inguru. Eraitza hauek adierazten dute errentaren banaketan konpresio esanguratsua gertatu zela gutxieneko soldata handitzearekin batera.

Pobrezia murrizteko helburuari dagokionez, eskuragarri dauden azterketek eraitza osagarriak eskaintzen dituzte. Granell et al-ek (2022)¹⁰ gutxieneko soldataren igoerak 1.631.000 langileri me-sede egin ziela kalkulatu dute, batez ere nekazaritza, ostalaritza eta merkataritza sektoreetan, eta gazte, emakume eta atzerritar taldeen artean. Haien datuen arabera, 2018 eta 2020 artean 250.000 pertsonak baino gehiagok ihes egin zuten pobreziatik, horietatik %48 30 urtetik beherakoak. Bestalde, Arranz eta García-Serranok (2022) ondorioztatu zuten gutxieneko soldataren igoerak pobrezia-aren intentsitatea %3,4 murriztu zuela, nahiz eta bere intzidentziak orokorrean eragin handirik ez zuen izan. Hala ere, 16 eta 65 urte bitarteko biztanlerian, pobrezia-aren intent-sitatea %9,7ra jaitzi zen, eta intzidentzia %24ra. Bi lanak bat datoz azpimarratzean gutxieneko soldata igotzeko politikak desberdintasunak murrizten eta diru-sarrera baxuak dituzten etxeen bizi-baldintzak hobetzen lagundu dutela.

3.3. Ondorioak errentaren banaketan, soldata-egituran eta enpleguan

Lanbide arteko gutxieneko soldataren igoeraren eta lan errentaren igoeraren arteko erlazioa konplexua da, ez baita soldaten bilakaeraren arabera bakarrik; produktibitatean eta lan-eska-riaren elastikotasunean duen eraginaren arabera ere bada (Acemoglu, 2002)¹¹. Zenbait iker-ketek iradokitzen dute ordezkapen-efektuak —hau da, lana teknologiak ordezkatzek— ez duela gainditzen LGSren eragin positiboa soldata-koefizienteetan, beraz, lan errentaren kuota errenta nazionalen handituko litzateke (Robinson, 1933)¹²; Rebitzer eta Taylor, 1955¹³; Ahn et al., 2005¹⁴; Flinn, 2006¹⁵). Autore hauek enpleguan izan dezakeen eragin positiboak ere adierazten dituzte kaleratzearen kostu handiagoaren eta lan eskaintzaren hazkundearen ondorioz. Beste lan enpi-riko batzuk, esaterako, Katz eta Kruegerrenak (1992)¹⁶, Blazevicenak (2013)¹⁷ edo Zhan et al-enak (2020)¹⁸, enpleguaren gainera eragin negatiboak ere baztertzeko dituzte, LGSk lan errentetan izan dezakeen eragin positiboaren ideia indartuz.

Dena den, bada beste ikerketa-lerro bat, LGSk lan-errentan epe luzera izan ditzakeen eragin negatiboak ohartarazten duena, batez ere produktibitatearen hazkundera soldatena baino handiagoa denean, zeinak 1980ko hamarkadatik aurrera lanak errentan duen parte-hartzearen beherakada eragin duen (ILO, 2014)¹⁹. Egiturazko aldaketak, hala nola kapital intentsiboko sekto-reetara berbideratzeak, batez ere errenta baxuko eta ertaineko herrialdeetan, LGSren ondorioak ere apal ditzakete (ELGA, 2012²⁰; Estrada eta Valdeolivas, 2012²¹).

Gainera, LGSk soldatak igotzeko duen eraginkortasuna soldata-banaketan duen posizio erlatiboaren eta bere aplikazioaren betetze-mailaren arabera da. Hala eta guztiz ere, azterlan gehienak bat datoz esatean LGSk soldata-desberdintasuna murrizten duela, bai zuzenean, bai zeharkako ondorioen bidez (“domino-efektua”), gutxienez baina zertxobait handiagoak diren soldatetan (Autor et al., 2008; DiNardo et al., 1996; Lee, 1999). Alemanian, zeharkako eragin horiek LGSren inpaktua bikoiztu zuten soldata-masa osoan.

Espainiar estatuan, azken ikerketek soldaten desberdintasunen murrizketa nabarmena erakusten dute 2019an LGSren igoeraren ostean. De la Rica et al. (2021), Granell et al. (2022) eta Arranz eta García-Serranok (2022) lehen bi deziletan soldaten hobekuntza nabarmena ikusten dute eta baita banaketaren zati baxuenean langileen proportzio txikiagoa nabarmendu ere bai. Adierazle ezberdinen bidez neur daitekeen soldata-konpresioa ikusten da, %20,7 eta %25,4 arteko murrizketarekin indize interdezilikoetan eta %7 eta %10 Gini eta Theil bezalako indize globalatan. Soldata baxuekiko sentikorrak diren indizeek (Atkinson) murrizketa are handiagoak direla adierazten dituzte, %12 eta %18 artean. Horrez gain, LGSk genero, jatorri edo adinaren arabera soldata-arrakala murrizten lagunduko zuen.

Enpleguari dagokionez, nazioarteko eta estatuko literaturak bat datoz LGSren eragin negatiboak orokorrean apalak direla esatean, talde jakin batzuetara mugatuta; hala nola gazteak, kualifikazio baxua duten pertsonak edo sektore zehatzetako langileak. Belman eta Wolfson-en (2014) eta Doucouliagos eta Stanley-ren (2009) meta-analisiak erakusten dute enpleguaren batez besteko elastikotasuna LGSren igoeraren aurrean -0,1 dela. Hau da, LGSren %10eko igoerak enplegua %1 bakarrik murriztuko luke. Estatuko estuinguruan, Lacuesta et al-en (2019)²² edo AIReFen (2020)²³ bezalako ex-ante ikerketek 24.000 eta 40.000 lanpostu arteko galerak kalkulatu zituzten, eta BBVA Research-ek, berriz, 75.000 eta 195.000 lanpostu arteko sorrera txikiagoa aurreikusten zuen 2019-2020rako. Hala ere, ex post ebaluazioek ez dituzte iragarpen horiek baieztatu.

AIReFek (2020), Espainiako Bankuak (2021) eta De la Rica et al-ek (2021) ondorioztatu dute 2019ko LGSren eragina enpleguan oso mugatua edo are hutsala izan zela. Ikerketa batzuek hobekuntzak ere nabarmen dituzte, hala nola, lan-errotazio txikiagoa edo produktibitate handiagoa. Tradizionalki analitik kanpo geratu diren taldeen kasuan, hala nola, etxeko langileak edo lan anitzak dituzten pertsonen kasuan, Cárdenas et al-ek (2022) ez dute lan-ibilbideetan eragin negatiborik aurkitzen. Bere aldetik, De la Rica et al-ek (2021) igoeraren ondorengo seigarren hilabetetik aurrera eragin negatibo arin bat hautematen dute, 28.000 lanposturen galera zenbatsita, nahiz eta lanaldiaren iraupenean eragin handirik ez duten.

Batera hartuta, eskuragarri dauden datuek iradokitzen dute Espainian 2019ko LGSren igoerak ez duela enpleguaren narriadura nabarmen eragin, eta, aldiz, hobekuntza argiak sortu ditu soldata baxuagoko langileen soldata banaketan eta diru-sarreraren gainean. Hobekuntza hauek bereziki garrantzitsuak izan ziren nekazaritza, ostalaritza eta merkataritza bezalako sektoreetan enplegatutako emakume, gazte, migratzaile eta kualifikazio baxuko langileentzat (Granell et al., 2022). Dube-k (2019) ondorioztatzen duenez, enpleguaren sentsibiltatea LGSren igoeraren aurrean orokorrean baxua den arren, komeni da pixkanakako igoerekin aurrera egitea eta horrekin batera etengabeko ebaluazioa egitea, horren eragin positiboa maximizatzeko eta testuinguru ekonomiko desberdineko arriskuak minimizatzeko.

3.4. Ondorioak politika ekonomiko, industrial eta ekoizpen-garapen gisa

6. or.

Munduko Bankuak, 2015eko txosten batean, gutxieneko soldata handitzearen eta produktibitatearen arteko erlazioa aztertzen zuen, ondorio positiboa izan zitekeela ondorioztatuta. ELGAko kide diren 18 herrialdeetako datu agregatueta oinarrituta, gutxieneko soldataren eta batez besteko soldataren arteko ratioaren ehuneko 10 puntuko igoerak epe luzerako lanaren produktibitatearen eta faktore-anitzeko produktibitatearen ehuneko 1,7 eta 2,0 puntu arteko igoerarekin lotzen du. Horrez gain, txostenak froga positiboak biltzen ditu Txina, Estatu Batuak eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetan, non gutxieneko soldataren igoerak produktibitatean ere eragin onuragarriak izan zituen.

Munduko Bankuaren txostenak hiru mekanismo identifikatzen ditu gutxieneko soldata igoerak produktibitatea hobetzeko. Lehenik eta behin, kualifikazio gutxiagoko langileak kualifikazio gehiago dutenekin ordezkatzeari, enpresaburuek lan kostuak gora egiten dutenean profil produktiboagoak kontratatatu ohi baitituzte, enplegua nahitaez murriztu gabe. Bigarrenik, enpresaburuek eraginkortasunean hobetzeko prest leudeke prestakuntzan, teknologian edo kudeaketa-praktika berrietan egindako inbertsioen bidez, soldata-kostu handiagoak konpentsatzeko. Hirugarrenik, soldata altuagoek lan-errotazioa murriztea dakarte soldata baxuko langileekin alderatuta, espe-rientziadun langile gehiago sortuz, eta produktibitatean ere eragin positiboa ekarriz.

Alemanian ardaztutako ikerketa osagarri batek (Dustmann et al., 2020), 2015ean gutxieneko soldata ezartzearen ondorioak aztertu zuen, zeinak langile guztien %15ari eragin zion. Ikerketak ondorioztatzen du gutxieneko soldataren igoerak soldata igozten zituena enplegua murriztu gabe, eta, aldi berean, lanaren biresleipena eragin zuela enpresa produktiboagoetara. Maila indibidualean, soldata baxuko langile asko negozio txikietatik handi eta hobeto ordaindutakoetara pasa ziren. Eskualde mailan, enpresen batez besteko kalitatea (tamainaren edo soldata-efektu finkoaren arabera neurtua) handitu egin zen, batez ere neurriak gehien eragin zituen eskualdeetan.

Azterketak ere ikusten du biresleipen horrek produkzio-sistemaren eraginkortasun orokorra hobetu zuela, nahiz eta albo-ondorio jakin batzuk izan: enpresa txiki batzuek merkatua utzi zuten, eta, baliteke negozioen kontzentrazioa areagotu eta lehia murriztu izana. Horrez gain, langile batzuk urrunagoko enpresetara joan ziren, bidaia denbora luzeagoak eta balizko desabantaila pertsonalak suposatuz, soldata altuagoa lortu arren. Biresleipen-ondorio horiek ezartzea eta kuantifikatzea gutxieneko soldataren ongizatearen ondorio orokorrak ulertzeko funtsezko lehen urratsa da.

LGsaren igoeraren ondorioen laburpena


Gizarte politikarako tresna gisa	Kotizazio-oinarriak igotzen ditu Gizarte Seg. diru sarrerak eta diru bilketa handitu
Sozioekonomikoak	Soldata desberdintasuna eta lan pobrezia murriztu
Errentaren banaketa, soldata egitura eta enplegua	Eragin anbigua errentaren banaketan eta efektu txikia enpleguan
Politika ekonomiko, industrial eta ekoizpen garapen	Ondorio positiboak produktibitatean

4. LGS ZIFRATAN

2000tik 2025era, Espainiar Estatuko LGSk eraldaketa nabarmena izan du, 2000. urtean 14 ordainketatan hileko 424,8 eurotik 2025ean hileko 1.184 eurora igaroz. Bilakaera hori ez da lineala izan. Mendearen hasieran, LGS nabarmen baxua zen Europako beste herrialde batzuekin alderatuta. XXI. mendearen lehen urteetan, igoerak moderatuak izan ziren, 2008an 424 eurotik 600 eurora pasatuz. 2008 eta 2010 artean apur bat hazten jarraitu zuen, baina 2010etik aurrera geldialdi batean sartu zen. Sei urtez jarraian, 2010 eta 2016 artean, gutxieneko soldata ia izoztuta egon zen hilean 650 euro inguruan. Izozte hori oso lotuta zegoen krisi ekonomikoan hartutako austeritate politikekin. 2017an eta, batez ere, 2018an, igoerak berriro hasi ziren, urte horretan hiler 735,9 eurora iritsiz.

Dena den, 2019. urtetik aurrera inflexio-puntu bat eman zen %22,3ko igoerarekin, LGS hiler 900 eurotan kokatuz. Joera horrek hurrengo urteetan gorakada progresiboekin jarraitu zuen. 2025ean, LGS hiler 1.184 eurora iritsi da, eta horrek %160 baino gehiagoko igoera metatua suposatzen du 2000. urtearekin alderatuta.

LGSaren bilakaera (eurotan eta 14 ordainsaritan)




Iturria: Azterketa Bulegoak eginda Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren eta INEren datuekin

Baina LGSren bilakaera benetan ulertzeko, ez da nahikoa bere balio nominalei erreparatzea. Ezinbestekoa da balio erreala aztertzea, termino errealean egindako analisiak bizitza-kostuaren arabera bilakaera behatzeko aukera ematen baitu, eros-ahalmenaren ikuspegi zehatzagoa eskainiz. 2000-2025 aldirian, hiru etapa nagusi ikusten dira: 2009ra arte hazkunde errealeko moderatuaren lehen fase bat, erosteko ahalmenaren geldialdi edo galeraren bigarren fasea eta 2019tik aurrera susperraldi handiko azken fase bat. Guztira, 2000. urtearekiko soldata errealean igoera %57koa izango litzateke.

Hala ere, soldata errealean azken urteotako bilakaera aztertzen badugu, 2019a abiapuntutzat hartuta (hau da, pandemiaren aurreko aldia), hazkundea oso mugatua izan dela ikusten dugu. Zehazki, orduz geroztik, soldata erreala apenas %8 igo da, eta 2020az geroztik ez du ia aldakuntza nabarmenik izan. Joera honek langileen erosteko ahalmena hobetzeko gaitasun urria nabarmentzen du.

LGS errearen bilakaera 2025eko prezio konstanteetan (eurotan eta 14 ordainsaritan)

8. or.



Iturria: Azterketa Bulegoak eginda Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren eta INEren datuekin

Soldata errearen goranzko joera apur hori izan arren, LGS nahikoa ez dela argi eta garbi ikusi daiteke gure lurraldeko errealtate sozioekonomikoa kontutan hartzen badugu. Gogoratu beharra dago LGS jasotzen duten pertsonen diru-sarreraren gehiengoa ezinbesteko ondasun eta zerbitzuak eskuratzea bideratzen dituztela, hala nola janaria, alokairua edo etxebizitza, eta erregaia (gasolina adibidez). Hain justu, azken urteotan prezioen igoera gehien pairatu duten produktuak dira. Adibidez, elikagaien prezioak etengabe igo dira, %37a 2019az geroztik²⁴, eta etxebizitza eskuratzeko (bai alokairuan, bai hipotekak) baita ere asko garestitu da ere azken urteetan.

LGS gutxiegi dela egiazta daitekeen zerbait da; eta hau baieztatzen duten adierazleak ere badaude. Eusko Jaurlaritzak bi urterik behin argitaratzen duen Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (EPDS gazteleraz) iturri horietako bat da. 2022ko azken txostenean ezarri zuen pertsona bat ongizate eza izaten hasteko atalasea hilean 1.356 euro garbi zela 12 ordainketetan, hau da, gutxi gorabehera 1.654 euro gordin (14 ordainketetan 1.418 euroren baliokide izango litzateke).

Ongizate ezaren atalasea 2022an

12 ordainsari ➤ 1.356 euro garbi= 1.654 euro gordin

14 ordainsari ➤ 1.418 euro gordin

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (2022) eta INE.

5. LGS KALKULATZEKO METODOLOGIA BERRIA

Egungo metodologiak dituen mugen kritika batean oinarrituta, atal honek LGS ezartzeko metodologia berri bat proposatzen du. Era berean, Hego Euskal Herrian izango lituzkeen ondorio ekonomiko eta sozialak ere zehazten dira.

5.1. Irizpideak

Gutxieneko soldata legez ezartzea da gutxieneko soldatak ezartzeko mekanismo nagusia (ILOko kide diren herrialdeen %90ek hala egiten dute), eta %10ek Negoziazio Kolektiboko egituren bidez egiten dute (adibidez, herrialde nordikoek). Metodologia askotarikoak izan arren, azken urteotan kalkulurako konbergentzia bat egon da herrialde bateko gutxieneko soldata batez-besteکو soldatarekin erlazionatuz, lehenengoa bigarrenaren ehuneko gisa ezarriz. Eskubide Sozialen Europako Gutunak gomendatzen du gutxieneko soldata herrialde bakoitzeko batez besteko soldata gordi-naren %60 izatea gutxienez.

Bataz besteko soldata, batez besteko soldataren %60 HEhN 2022an

	Orokorra	Jardunaldi osoan
Urteko bataz besteko soldata	31.579 €	35.844 €
Bataz besteko soldataren %60a	18.948 €	21.506 €
14 ordainsaritan	1.353 €	1.536 €

Iturria: Azterketa Bulegoak eginda EINeko datuekin

2022an, Hego Euskal Herriko batez besteko soldata orokorraren %60 hilean 1.353 eurokoa zen 14 ordainketetan, urte horretako Estatuko Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino handiagoa, baina oraindik EPDSk gomendatutako atalasea baino txikiagoa. Batez besteko soldata orokorraren ordeз lanaldi osoko langileen batez besteko soldata hartzen bada erreferentziaztat, %60 hori 1.536 eurora igotzen da, eta horrela EPDSk ezarritako 1.418 euroko muga gainditzen da.

Hala ere, LGSren zehaztapena batez besteko soldataren ehunekoan soilik oinarritzeak muga garrantziak dakartza. Ikuspegi honek ez ditu kontuan hartzen beste funtsezko faktore batzuk, hala nola, enpresen irabazien bilakaera, azken urteotan inoizko altuenak izan direnak. Ikuspegi horretatik, soldata-masaren banaketa hobe eta kapitalaren eta lanaren arteko harreman ekitatiboagoa sustatzen duten adierazle alternatiboak proposa daitezke. Era berean, %60ko irizpideak ez ditu barne hartzen soldaten barne banaketa bezalako elementuak, lan-merkatuan bertan dauden desberdintasunei jaramonik egin gabe. Horrela, batez besteko soldata bera duten bi herrialdek soldata-egitura oso desberdinak izan ditzakete, eta, beraz, gutxieneko soldata baten bidez babesteko beharrian oso desberdinak izan ditzakete.

Aldi berean, irizpide honek eros-ahalmenaren galera inplizitua ere ekarri dezake. Azken urteetan inflazio maila oso altua izan dugu, non soldatek eros-ahalmenaren galera izan duten. Bataz-besteکو soldatak ere galera hori pairatu du eta honek gutxieneko soldataren galera ere suposatzen du.

Hori dela eta, biztanleko BPG nominala per capita (BPGnpc) erreferentziazko adierazle gisa proposatzen da gutxieneko soldata ezartzeko. LGS BPGnpc-aren ehuneko gisa ezartzeak esan nahiko luke langile bakoitzak gizartean sortu den balioagatik portzentaje hori jasoko lukeela. Modu honetan, produktibitatea areagotzea edo enpresen irabaziak bezalako adierazleek ere eragin zuzena izango lukete gutxieneko soldatan modu positiboan eta, eragin induzituaren bidez, soldatetan oro har.


5.2. Proposamena

10. or.

